

# Aretxa gazeta

Aretxabaleta · 1997ko urtarrilak 10 · 113. zka.

A group of four children are the central focus of the image. In the foreground, a young boy with red hair and glasses wears a red jacket and holds a yellow balloon. Next to him is a young girl with a red bow in her hair, wearing a red plaid shirt and a dark patterned vest, holding a blue balloon. Behind them, a girl in a white hoodie and a girl in an orange jacket are visible. The background is dark, suggesting an outdoor night setting.

UNITED COLORS  
OF ARETXAGAZETA:

## Kolore guztiak

■ Gabonei errepasoa ■ Andoni Zubizarreta

## Gogoratu...

ondo pasaz ikas dezakezula.  
Oraindik denboraz zaude Udal-  
Euskaltegian izena emateko

EUSKALDUNTZE maila guztiak  
ALFABETATZE  
IKASTARO BEREZIAK...

**ANIMA ZAITEZ!**



“LEINTZ” UDAL EUSKALTEGIA  
Durana, 11 20.550 ARETXABALETA  
Fernando Enparantza 20.540 ESKORIAMATZA  
☎ 79 21 68 • Faxe: 77 13 83



# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldi kontrola
- Zitologiak
- Etab.

*Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura*

Doktoreak: CRISTOBAL  
ESTOMBA  
GOMEZ  
MURGIENDO  
OTALORA  
RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE • Tfnoa: 79 20 18

# Ze asmo dituzu urte berrirako?


Leonardo Zubiria  
(Jubilatua)

Ni jubilatuta nago eta nire andria jublatu begira nago. Maiatzean jubilatuko da eta alaba Kanariar irletan dagoenez bisitatzera joango gara.



Piedad Merino  
(Langilea)

Seme-alabek ikasketak ditut buruan. Guretzat berriz lana izan dezagula. Honez gain erretzeari uztea ere nahi dut.



Ana Bengoa  
(Langabetua)

Bueno momentu honetan lan barik nago eta lana aurkitzea izango litzateke nire lehen asmoa. Horrez gain, erretzeari ere uztea gustatuko litzaidake.



Justo Valdezate  
(Pentsionista)

Eguzkia hartu eta deskantsatzea nahi dut. Horixe da aurten-go urterako nire asmoa.



## e s k u t i t z a




Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria



Aretxabaletako  
Udalak diruz  
lagundutako  
aldizkaria

### Urte barri, itxura barri

Urte barria bizi barria esaten da. Aretxagazetak ere bereak egiten ditu berba hauek. Olentzeroren bisita jaso dugu eta honek kolorez beteta utzi du gure aldizkaria. Urte barrarekin batera kolorea eta beste aldaketa txiki batzuk izan dira gurean.

Baina gure asmoak ez dira hor bukatzen. Gure asmoa eten barik hobetzen joatea da, oraingoan azala izan den moduan aurrerago barrukoa.

Aldaketa hauek zuen gustokoak izango direlakoan agurtzen zaituztegu, hori bai urte barri on bat opatuz.

Urte barri on!  
**Aretxagazeta**

### Manifestazioa


AHTren Aurkako Asanbladak manifestazio batera deitzen du urtarrilak 18 larunbatean Donostian, arratsaldeko 6etan Bulebarrean. Mobilizazio honen helburua da Eibar-Gasteiz autopista edo AHT bezalako makro-proiektu desarrollisten inposaketaren aurkako iritzia kaleratzea eta horren geldieraztea eskatzea, naturari begira errespetuan eta gizarte aldetik justizian oinarrituriko etorkizunaren alde.

Azpiegitura erraldoi hauen inguruko azkenaldiko polemika ikusirik, salatu egiten dugu Euskal Gobernuaren eta Nafarroakoaren jokaera tamalgarrria, gainerako administrazioena bezalaxe, Euskal Herrian kapitalismo basatienari dagokion eredu desarrollistarekin bateratzen den eta lurra dominatzeko jarrera bortitza nabarmentzen duten proiektuak inposatzen ari zaizkigulako. Gogoratzen dugu azken urteotan herriari informazioa ukatuz eta ilunkeriaz beterik egin dutela AHTren proiektua, inolako gizarte eztabaidarik gabe, edo manipulazio nardargarrria erabiliz Eibar-Gasteiz autopistaren inguruan IGP delakoetan.

Beraz, proiektu txikitzaile hauek, ekiditen ez baditugu, parte garen lurraren kontra eta orohar euskal gizartearen aurka suposatuko duen eraso bortitza geldierazteko gure borondatea aldarrikatuko dugun mobilizazio honetan partehartzera deitzen zaitugu. Autobusa antolatuko da.

**Leintz Bailarako AHTren Aurkako Asanblada**

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Iosu Urkia.  
**Erredakzio-kontseilua:** Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantzazu Abasolo, Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Ana Eriz. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigrif. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da.  
**Legedagailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609  
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Apirila eta maiatza bitartean erabiltzeko moduan egongo dira

## Komun publikoak berriztuko dira

□ **Komun berriek, gutxituendako komuna, pañalak aldatzeko lekua, gizon-emakumeendako komunak, dutxak eta almazenerako gela izango dute**

Aretxabaletako Udalak herriko komun publikoen egoera kaxkarra ikusita, hauek berrizteko obrak egingo ditu. Orain 25 urte baino gehiago egin ziren komun hauek eta ordutik berrikuntza txiki batzuk izan arren gaur egun egoera higieniko kezka-garria erakusten dute. Eta ez hori bakarrik, espazioaren banaketa ere ez da egokiena.

Horregatik Udalak berrikuntza lanak martxan jarriko ditu. Proiektu berria egin da horretarako eta komuna berriz eraikiko da, espazioaren banaketa egokiago bat eginez.

Kanpotik aldaketa ez da hain nabarmena izango, bi ate beharrean bakarra izango du. Barruan, gutxi-

tuendako komuna, pañalak aldatzeko lekua, gizon emakumeendako komunak, dutxak eta almazenerako erabiliko den gela egingo da.

Orain artean edadeko jendeak eta umeez erabili dituzte gehien. Komunen ordutegia goizeko 8etatik gaueko 9ak artekoa da baina datozen hiru hilabeteetan obrak direla eta itxita egongo dira.

Urtarrilean hasi eta apirila bitartean luzatuko dira obrak, hiru bat hila-beteren buruan erabiltzeko moduan izango dira.

Construlan enpresa arduratuko da lanok aurrera eramateaz. Udalak obra hauetarako erabiliko duen aurrekontua berriz 6 milioitakoa da.

## Euskaraokea Aretxabaletan

Urtarrilaren 30ean Aretxabaletan grabatuko da Euskaraoeko programa. Ikastoletako umeez parte hartzeko aukera izango dute bertan eta herriko pertsona nagusiago batzuei ere tokatuko zaie abestea. Irailean jarri zen martxan Euskaraokea eta dagoeneko 20 programa grabatu dira. Arrakasta haundia izaten ari da, izan ere umeei asko gustatzen zaie abestea. Hasi beraz egun horretarako ahotsak berotzen, Ixiar Oreja eta Iñaki Urdanpilletarekin batera euskaraoeko abestiak kantatzeko.

## Bainuetxetarako izena-emateko epea zabalik

1997. urterako INSERSOK antolatzen duen Bainuetxetako programetan parte hartu gura dutenentzat izena emateko epea zabalik dago. Otsailetik abuztura bitartean joan ahal izateko urtarrilaren 15a baino lehenago bete behar da eskaera. Udazkenean joateko berriz, maiatzaren 15a baino lehenago. Eskaera orria udaletxeko gizarte zerbitzuan bete beharko da eta beharrezkoa izango da mediku txostena. Eskaerak berriz, Bergarako jubilatuen etxetik bideratuko dira.

*Okindegia - Gazotegia*

**Aretxabaleta**

Mitarte, 1-Tfnua: 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

**ZARAIA**

**TABERNA**

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

**MANTEKA ANAIK**

ESKORIATZA

Tfn 714345

**ERRETEGIA**

Bazkari eta afariak

MENDIOLA

**Astelehenetan itxita**

**ESKORIATZA**

## Herriko biztanle kopurua jeitsi egin da iazko urtean zehar



1996an zehar gutxitu egin da Aretxabaletako biztanlegoa. Iazko urte hasieran 6.047 biztanle zituen Aretxabaletak. Aurtengo urteko urtarri-laren leian berriz, 5.948 biztanle, beraz herriko biztanle kopurua nabarmen jeitsi da. Iazko urtean zehar, 93 lagunek aldatu dute herriz, eta 49 biztanle hil egin dira. Beraz, danera 142 izan dira herrian izan diren bajak. Altei dagokienez berriz, etorri direnen kopurua 59 lagunetakoa da. 53 ume jaio dira eta danera herrian

izan diren altak 112 izan dira.

Azken erroldako datuen arabera iazko urteko maiatzean 5.943 biztanle zituen Aretxabale-tak. Horietatik 3.031 gizon-ekoak eta 2.912 emakume-ekoak. Ordutik ona bost biztanle gehiago dau-de herrian.

Bestalde, erregistro zibileko datuek erakustera ematen dutenez iazko urtean 9 ezkontza izan ziren herrian. Horietatik bi bakarrik egin ziren zibilez, gainontzeko zazpiak elizaz ezkondu ziren.

### Caritasen janari bilketa

Parrokiako Caritas taldeak janari bilketa egin du aurtengo gabonetan ere. Katekesiseko haurrak izan dira bilketa honetaz arduratu direnak. Horrela, lenteja, arroz, garbantzo, azukre pakete eta beste hainbat gauza batu dituzte.

Bildutako janaria arazo ekonomikoak dituzten familiei banatzen zaie eta lan honetaz Caritas arduratzen da. Aurten esaterako Caritasek herriko 15 familien artean banatu ditu bildutako janariak.



# LASAGABASTER

## Zure Konfiantzazko Denda


Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE  
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

## Etxabe harategia

Durana 4  
☎ 79 16 61

## GUREA taberna jattetxea

Durana kalea  
Tfnoa: 79 20 64



## EGUZKIGRAF

inprimategia



Industrialdea F-0-4  
Tfnoa: 791844  
Faxa: 792944

ARETXABALETA

# Merkealdiak, ate beste maratil

Aretxabaletako dendariak, merkealdien inguruko legeak ez duela ezertarako balio pentsatzen dute. Dendariak, legeak beste iruzur dituela uste dute.

Urtarrilaren 7an hasi eta datozen egunotan gure herriko eta inguruetako dendak "beherapen" hitzaz apaindurik ikusiko ditugu. Aretxabaletan ere, denda askotako erakustapaletan prezioak behera nola egin duten erakusten diguten adierazleak asko dira. Dena den, merkealdiak badute beraien atzean arau edo lege bat, 1996an onartutakoa hain zuzen ere.

Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako komertzio kamarak eta Gipuzkoako komertziantek konsensus hartutako erabakiak arau bihurtu dira urtarriko beharapenen atarian. Dena den, Aretxagazetak komertziodunen artean eginiko galdeketa batek argi utzi du, atxabaltar dendariak ez daudela bat ere pozik legea interpretatzeko erarekin. Feli dendako, Feli Gastañagarentzat, "Eusko Jaurlaritzarekin hainbat bilera egin

ondoren, akordioa lortu genuen baina azken finean akordioak ez du ezertarako balio izan".

Bere ustez, "orain arte, dendari bakoitzak berak nahi zuenean jartzen zituen merkealdiak. Akordio honek orainartekoa debekatzen zuen, dena den gaizki eginiko legea da. Honen arabera, ezin da beherapen hitza erabili uztailean eta iraillean ezik, baina dendari askok beste termino batzuk erabiltzen dituzte eta edozein hilabetetan jartzen dituzte beherapenak".

Arrasateko Lasagabaster dendako Dorleta Lasagabasterrek ere legearen ahulezia adierazi nahi izan du, "legearen aurrean interpretazio desberdinak egiten diren bitartean, ez da inoiz batera deskontuak jartzeko aukerarik egongo".

Dorletarentzat legea betetzen da, "beherapen hitza soilik urtarrilean eta uztailean erabiltzen dugun bitartean legea betetzen da, urteko beste garai batzuetan beste termino



batzuk erabiltzen ditugu eta kitto, horregatik lege honek ez dauka zentzu haundirik.

Gure ikuspegitik, hau da, erosle garentzat ez da txarra konpetentziak eragindako merkealdien borroka hau. Gure helburua beti izango da produktuak al den eta merkeen erostea eta zapata edo beste edozein produktu bi mila pezeta merkeago erosterik badugu, seguru erosiko dugula. Nolanahi ere dendarien jarrera ulergarria da, komertzio batek ezin du aurrera egin soilik merkealdiekin eta egokia izango litzateke behingoz ados jartzea eta guztion onerako merkealdi eta beherapenen arauak zehaztea.

Gorka Etxabe

## ENBOR

*Eloy Borgas Iglesias*

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta  
Tfno-Faxa: 79 02 51

Aretxabaletako  
industrialdea, S.A.

**"ARINSA"**

Basabe poligonoa "EO-10"  
Tfnoa: 79 62 80  
ARETXABALETA



**Esko Sport**

Intxaurtxueta, 5 • ESKORIATZA Larunbat arratsaldetan zabalik  
☎ 71 52 96

## KIROLDENDA

Orain  
beherapenak



**GOYARAN ERRETEGIA**

*Parrila espezialitatea*

Solohaundi-8 ARETXABALETA ☎ 79 68 57



**LASA  
AGUILERA**  
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 79 29 26



**SEGUROS LAGUN ARO**  
ASEGURUAK

Euskadiko Kutxa  
Taldekoa

Errekabarren, 20 behea  
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11



# Kitarra eta kantuari bidea emanez

Iazko azaroan Loramendi Elkarteak Euskal kanten ikastaroa martxan jarri zuen. Orduetik Euskal kantak ikasten dihardu herriko boskote batek. Andoni Arana eta Oier Sarasua dira maixu. Guztiek positibotzat jotzen dute egiten ari diren kantu ikastaro hau. Talde honetan parte hartu ahal izateko beharrezkoa da kitarra jotzen jakitea eta gerora begira kantu afari eta ekitaldietan parte hartzeko gogoia izatea.

• Era honetako musika ekintza bat antolatzen den lehenengo aldia da. Ze parte hartze izan duela uste duzue?

**Andoni eta Oier:** Hasiera baten oso parte hartze txikia izan duela uste genuen. Egia esanda gutxi gaude taldean baina daudenak asko balio dute. Gainera zenbat eta pertsona gutxiago errezago da erakusteko eta giro on bat sortzeko ere bai.

• Ekintza honetan kitarra jotzen dakitenek bakarrik hartu dezakete parte. Ez duzue uste hau muga bat denik?

Bai, duda barik. Hala ta ere, norbaitek izena ematea nahi izango balu bildur barik etorri daiteke.

• Nolako izan da ikastaro hau aurrera eramatearen esperientzia?

Gauza simple eta oso polita. Ikastarora etorri den jendea, kantak ikasteko interes handia zuen jendea izan da, beraz denondako izan da positiboa.

• Norke proposatu zuen ikastaro hau egitea?

Loramendi elkartearen ideia izan zen ikastaroa ematearena. Guri proposatu ziguten eta gu ados egon ginen horrelako ikastaro



Nagore Olave, Andoni Arana eta Oier Sarasuarekin batera

baten parte hartzeko.

• Bakarrik kantuak ikasteko aukera bat da edo gero honen inguruan ekintza edo emanaldiren bat egongo da?

Ez dakigu, beharbada kantu afariren baten edo parte hartuko dugu baina hori ikusteko dago oraindik. Gure hasiera bateko helburua behintzat euskal kantuak erakustea da eta bide batez giro jator batean ondo pasatzea.

• Noiz arte iraugo du?

Ba...momentuz ditugun kantuak ondo ikasi arte eta ikasten

ditugunean, listo!

Zerk bultzatu zaitu ikastaro honetan parte hartzera?

**Kepa Errasti:** Gitarra jotzea gustatzen zait eta ikastaro hau aukera ona dela uste dut gitarra praktikatu eta euskal kantak ikasteko.

• Gerora begira musika munduan sartzeko intentziorik?

Ez, gehienbat niretako hartu dut ikastaro hau.

Jennifer Nelson  
Amaia Murgiondo



*Luvia*

Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 79 16 00 ARETXABALETA  
Biteri 1 • ☎ 79 66 53 ARRASATE

TABERNA  
**ARLUTZ**  
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34



# *gabonei errepassoa*



## **Abenduaren 24a kanturako eguna.**

Ortzadar Atsedan taldeak, goizean-goiz bildu eta auzoz-auzo eta baserriz-baserrri kantatzeari ekin zion. Eguraldia goibel azaldu zen baina 30 bat neska-mutil ez ziren horregatik beldurtu eta kantu eta trikitilarekin alaitu zituzten herriko bazterrak. Arraultza, txorizo, dirua eta bestelakoak batu zituzten, guztiarekin bazkari ederra egin zuten. Kanean ere eskaini zioten kantuari bere tarteak. Kurtzebarri eskolako eta Santa Rita ikastetxeko umeak kalez-kale ibili ziren kantuan. Makina bat guraso, andereino eta ume bildu ziren eta egunari amaiera ona emateko ondo merezitako txistorrada izan zuten.

**BR** Amaia-Berri, S. L.

**Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia**

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA



**ARGÍ-PLASTIC**

Leihoak egiten dira

Zigarrola 1 8 pabiloia

ARRASATE

Tfnoa: 79 62 18/ Fax: 77 11 30






**Gure Olentzero.**

Beti moduan umeen eskariak jasotzeko eta ondoren erregaluak banatzeko gure artean izan genuen Olentzero. Ume guztien nahiak beteko zituela uste dugu.

Guri behintzat eskatutako moduan kolorea ekarri digu. Ortzadar taldeak Jaiotza berezia ipini zuen plazan, Jesus, San Jose eta Mariaz gain, aingerua, astoa, oiloak etabar zituena.

**Antonio Zuazua** Olentzeroren gurdi gidaria izan zen.



Jaiotzean aingerua ere bazegoen



**“Katiuska”  
arrakastatsua.**

Aretxabaletako abesbatzak eta Leizarra musika eskolak gabonetarako antolatutako ekintzen artean Katiuska opereta izan genuen.

Andra Mari parrokia jendez gainezka egon zen zarzuela hau ikusi eta entzuteko.

Mariatxen Urkia, M<sup>a</sup> Carmen Etxeandia, Iñaki Goñi eta Aitor Kamiruagak egin zuten solista lana, Aretxabaletako abesbatzak eta instrumentu desberdinez lagundurik.





## Jaiotza

**Hilario Bartolomek** argazkietan duzun jaiotza ikusgarria egin du.

Egun asko eta ordu askotako lana behar izan du jaiotza egin ahal izateko. Ez da txantxetako lana, jaiotza biziduna baita: ura, argia, sua, mugitzen diren pertsonak... detaile guztiz eginikoa da.

Lagun asko pasatu da Hilarion etxetik jaiotza ikustera, gehienbat ikastoletako umeak. Eta jakina, norbaitek ikusi gura izango balu lasai joan daiteke Hilarion etxera, urtarrilaren 20a arte ez baitu kenduko.

Aurten gainera parrokiako jaiotza ere berak ipini du.

## Eskaparte lehiaketako irabazlea

Izozkitegi goxodenda eskaparte lehiaketako irabazlea izan da. Bigarren Miren Zuriñe gelditu da eta hirugarren Iriarte erropa denda.

Denda asko aurkeztu dira aurten lehiaketara baina antolatzaileek lehiaketatik kanpo utzi zituzten horietako batzuk eskatzen ziren baldintza guztiak ez betetzeagatik (denbora kontuak batez ere).



## Erregeak

Umeen ilusioa izaten jarraitzen duten erregeek amaiera eman zioten gabonei. Pertsona helduek kabalgatan parte hartzea lortu zen. Bide honetik jarraituz ea ba, garai bateko indarra berreskuratzen duen kabalgatak.





NISSAN MICRA



NISSAN ALMERA

NUEVO NISSAN PRIMERA




NUEVO NISSAN SERENA



NUEVO NISSAN TERRANO II



NISSAN MAXIMA QX



# ZATOZ EZ ZARA DAMUTUKO

**AZKAR IBILI, BAKARRIK ZU FALTA ZARA**



3 urteko garrantia  
edo 100.000 km. eta  
6 urte antikorrosioa.

segur NISSAN

NISSAN FINANZAKETA

INTERNET: [HTTP://WWW.NISSAN.ES](http://www.nissan.es)

## ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 / 71 20 02 - 20500 ARRASATE





**BEHERAPENAKI!**

**UNITED COLORS  
OF BENETTON.**


**T  
X  
i  
L  
A  
R  
R  
A**



**ELIKADURA BEREZIA**

Durana, 35  
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 79 44 28  
ARETXABALETA



**LOGOPEDIA ZENTRUA ARRASATE**

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk  
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

**SAGASTA**

**ELEKTRIZITATEA**

Elektragailuak  
Elektra-instalaketak

Otalora, 14  
Tfnoa: 79 16 10

**ARETXABALETA ITURGINTZA**

Durana, 16  
Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABALETA

**Biztanle ugari Urkulun (eta 3)**

Azken bi Aretxagazetetan landutako gaiari amaiera emateko ordua heldu da. Oraingo honetan bi hegazti akuatikoen aurkezten hasiko natzaizue.

**UBARROI MOTTODUNA**


*(Phalacrocorax aristotelis)*

**Gaztelera:** Cormorán moñudo

**Luzera:** 74-76 cm **Pisua:** 1000-1800 gr.



Hegazti beltz hau izugarri ona da urpeko arrantzan, horretarako lumen argizari maila er gutxitu egin duelarik. Ezaguri honek bere desabantaila ere badu, izan ere denbora gehiago behar du lehortzeko eta horregatik sarri ikusiko duzue hegoek zabal zabalik dituela *eguzkia hartzen*.



**LERTXUN HAUSKARA**

*(Ardea cinerea)*

**Gaztelera:** Garza real

**Luzera:** 90-95 cm **Pisua:** 1100-2000 gr.



Izenak dioten bezala, errauts koloreko hegazti luzea dugu lertxuna. Ur ertzean egon ohi da zeharo geldi albotik arrain, karramarro edota beste animaliairenen baten pasa arte. Laban itxurako bere mokoaren erasoa salbatzerik ez dago.

Hauetaz gain badugu txori arrantzale txikirik ere, esate baterako ur-zozoa eta Martin arrantzalea. Adibide gisa Ur-zozoa aurkeztuko dizuet.

**UR-ZOZOA (Cinclus cinclus)**

**Gaztelera:** Mirlo acuático

**Luzera:** 17 cm **Pisua:** 50-60 gr.



Ur-zozoa ez da erraz ikusten den txoria, bere kantua aldiz txik-txak-txiki-txiki-txak sarri entzuten da ur ertzetan. Papar zuriko txori beltz honek sekulako trebezia erakusten du arrantzatzerakoan.



**PIRRIPIO HEGAZABALA (Lullula arborea)**

**Gaztelera:** Totovía

**Luzera:** 13 cm **Pisua:** 25-30 gr.




Pirripioen (alondra) familiakoa den txori honek ur ertzetan hazten diren landareen artean ezkutatzeko egokia den lumaia du. Txoria zuri-horixka da eta marra marroi ilunak nabari zaizkio gorputzean (bereziki bizkarrean eta bularrean). Negu parteko bisitaria dugu.

Mikel Arroiabe

# Asier Guenetxea: "Txirrindularitzari eskaini diodan tarte nahikoa izan dela uste dut"

1996. urtea bukatu aurretik ezagutzera eman zuen Asier Guenetxeak txirrindularitza uzteko asmoa. Bost urte egin ditu Asierrek profesioaletan, hiru Artiach taldean eta beste bi Euskadiko taldean. Danera 19 karrera irabazi ditu profesioaletan, hori bai guztiak sprintean, bere abilezia karreraren amaieran egon da beti.

Bere bizitzak aldaketa nabarmena izan du. Egunero txirrinduari heldu beharrik ez du orain baina momentuz gustora dagoela adierazi digu bere lanpostu berrian.



• Nola gogoratzen dituzu zure txirrindularitzako hasierako urteak?

Etxean txirrindularitzarekiko afizio gogorra zegoen. Aita txirrindularia izandakoa zen eta etxean nabarmentzen zen hori. Nik ere askotan ebatzen nion txirrinduari, halako batean karreretan korritzen hasi nintzen arte. Gero profesioaletara pasatu nintzen eta bost urte egin nituen bertan.

• Zure txirrindulari bizitza horretan entrenatzaile desberdinak izan dituzu. Nor aipatuko zeniguke?

Entrenatzaile bakoitzak bere metodologia du. Beharbada gustokoen izan dudana Artiach taldeko Jesus Hoyos izan da. Erlazio gehien izan dudana

pertsona da.

• Txirrindularitza mundua utzi duzun honetan gelditu zaizu helbururik betetzeko?

Nik uste dut txirrindularitzari eskaini diodan tarte nahikoa izan dela eta tarte horretan ahal izan dudana guztia eman dut. Egia esan, txirrindulari guztiei moduan gustatuko litzaidake karrera haundi bat irabazi izana baina horretarako oso ona izan behar duzu.

• Txirrindularitza sakrifizio haundiko kirola dela uste duzu? Konpentsazioarik jaso duzu urte hauetan?

Egia esan, txirrindularitza sakrifizio haundiko kirola da baina beti egoten dira momentu onak sakrifizio hori samurtzen

dutenak. Karrera bat irabazten duzunean esaterako momentu txarrak ahaztu egiten dira.

• Momentu honetan zelan ikusten duzu Euskadi taldea?

Talde moduan, txirrindulariak kontutan hartu ezkerro, talde polita dela uste dut. Talde gaztea da, 24-25 urteko media duena. Hirugarren urtean taldea nahiko estabilizata dagoela ikusi da, baina talde berria da eta pausoak astiro-astiro eman behar dira.

Beste aldetik, esan

beharra dago diru arazo larriak dituela. Taldea nabarmen hobetu da baina momentu honetan arazo ekonomikoak hor daude.

• Txirrindularitzarekiko afizioaren inguruan zer duzu esateko?

Afizioa galtzen ari dela uste dut. Oraingo afizioa ez da orain 10 urte modukoa. Desberdina da baina hala eta ere ona izaten jarraitzen du. Lehengo txirrindulari karismatikoak, Gorospe, Marino... desagertu egin dira eta horrek ere bere eragina izango du.

## GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18  
Aretxabaleta

## BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE  
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA  
Otalora kalea  
Eliza aurrealdean  
Tfnoa: 77 13 57

## OSKAR

HARATEGIA

Loramendi, 1  
☎ 79 71 69

## MEMESA S.L.

**Industriaren alde**

Santa Kurtz, 25-27  
Tfnoa: 77 11 75  
ARETXABALETA



Txapelketan partehartu duten ume guztiek argazkia atera zuten

# V. gabonetako pelota txapelketa

Abenduaren 24an V. gabonetako pelota txapelketako finalak jokatu ziren Iturrigorri frontoian. Irailetik abendura artean zapaturu jokaketan etorri da torneo hau. Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Oñati eta Antzuolako pelotari gazteek parte hartu dute bertan.

Jose San Migelek zuzentzen duen taldea gogor ibili zen, izan ere, finalean jokatu ziren 5 partiduetatik 3tan Aretxabaletakoak aritu ziren lehian: benjamin lehen eta bigarren mailan eta alebin lehen mailan.

Hona hemen final horretako emaitzak:

**Benjamin lehen maila:**

Ekaitz Valdezate 18  
Bittor Vela 11

**Benjamin 2. maila:**

Gorka Etxabe 18  
Gorka Uribebebarria 13

**Alebin lehen maila:**

Haritz Kortabarria 18  
Oihana Mata 10

**Alebin 2. maila**

Iker Alzagirre (Bergara) 18  
Txomin De Vega 7

**Infantil maila:**

Urrutia-Ormaetxea (Elgeta) 22  
Viteri-Agirre (Antzuola) 10



## Fran Migel I. go xake openean txapeldun

Gabonetan xakean abila dela erakutsi digu osterera ere Fran Migelek. Abenduaren 28an Oñatin jokatu zen partida azkarreko I. go xake openean irabazle izan genuen, Felix Izeta xake jokalaria ezagunari irabazi ostean. 58 partehartzaile izan ziren guztira. Horien artean beste atxabaltar batzuk ere emaitza onak lortu zituzten: Andoni Migel zazpigarren postuan gelditu zen eta Aitor Alcaide hamargarrenean. Bestalde, Arrasaten jokatu ziren Santo Tomas Xake txapelketan ere atxabaltarrek lehen postuetan bukatu zuten. Esan beharra dago, maila haundia egon zela, Euskal Herriko hiru xake jokalaria onenak bertan izan genituen: Felix Izeta, Mario Gomez eta Rafa Alvarez. Fran Migelek laugarren postuan bukatu zuen eta jarraian bere anaia Andonik. Aitor Alcaide zazpigarren gelditu zen eta Joseba Altube bederatzigarren.

**Mitartegarai**  
Jatetxea

- Nekazaliturismo etxea
- Bertako sukaldaritza

Arientza auzoa • Tfnoa: 79 17 51  
ARETXABALETA

Pelikularik hoberenak

**DON BIDEO**

Lezama Merkatal zentrua  
ARETXABALETA

**LEIBAR**  
ARRAINDEGIA

Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79  
ARETXABALETA

# Ikusle askoren artean jaso zuen Andonik urrezko insignia



Andoni firmak botatzen

Abenduaren 24an, gabon egunez, Andoni Zubizarretak urrezko insignia jaso zuen UDA kirol elkartearen eskutik. Ekitaldi honekin UDAko 50. urteurreneko ekintzei amaiera eman zitzaion.

Ekitaldi berean UDA eta Mondra taldeen arteko derbia jokatu zen eta bi ekintza hauek ikuslego handia gerturatu zuten Ibarra futbol zelaira. Jabier Clemente selekzionatzailea ere bertan izan genuen.

Partiduan atxabaltarrak nagusitu ziren 3-2ko emaitzaz. 1 eta 0 irabazten joan ondoren, 1 eta 2 markagailua kontra izatera ere iritsi ziren, baina azkenik irabaztea lortu zuten. Aretxabaletako ikuslegoa pozik, arrasatearrak, berriz, ez ziren horren pozik gelditu, epaileak ateratako txartel horien ondoren, 9 jokalarirekin gelditu baitziren.

## Peña Zubizarreta torneo

Gabonetan Peña Zubizarreta futbol zazpi torneo jokatu da. 10-12 urte bitarteko hainbat gaztek parte hartu dute torneoan eta guztira zazpi talde ibili dira lehian, horien artean Arrasateko bi talde eta gainontzekoak Almen ikastola eta Aretxabaletakoak.

Partidu guztiak Ibarra futbol zelaian jokatu ziren. Finala urtarrilaren 4an izan zen eta Construcciones Cañas talde arrasatearra nagusitu zen. Bigarren argazkietan duzuen taldea gelditu zen: Kurtzebarri izenaz. Hirugarren Makokis talde arrasatearra. Ondorengoak hauek izan ziren: Peña Giltzurrun, Ramoncelona, Antxona Cantona eta azkenik Rianseiros taldea.



Argazkiko Kurtzebarri taldea bigarren gelditu zen

## DOIKALSE

Elektroerosio  
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1  
Aretxabaleta  
Tfno: 79 82 44

## ARGAZKI

Urkiola

Tfno: 79 39 20  
ARETXABALETA

## DOIKALSE

Elektroerosio  
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1  
Aretxabaleta  
Tfno: 79 82 44

## Martín

RELOJERIA • PIZKIFERIA



Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 01 72



## Andoni Zubizarreta

# “Ez dut uste futbolean urte asko jarraituko dudanik”

**Futboleko bide profesional luzea erakusten digu Andoni Zubizarretak. Mutikotan Almenen hasi zen futboleko jokatzeko. Gero UDAko jubeniletatik Alavesera egin zuen salto eta 3 urte egin zituen bertan. Atletika izan zuen hurrengo taldea. Bere atezain abileziak bost urtetan erakutsi zituen bertan Bartzelona taldeak fitxatu zuen arte. Bartzelonan zortzi urte egin ondoren gaur egun Valentzia taldeko atezaina dugu.**



Urtean pare bat aldiz etortzen naiz, gabonetan eta udan normalean. Lehen sariago etortzen nintzen denbora gehiago izaten genuen libre. Orain denboraz estuago ibiltzen naiz eta beti egoten da eginbeharrekoren bat. Hala eta ere, etxera beti gustora etortzen naiz.

Urtean bi aldiz etorrita beti egoten dira aldaketak.

**• Hemengo futbolaren emaitzak jarraitzen dituzu?**

Bai, gutxigorabehera bai. Etxera deitzen dudanean ere beti galdetzen dut hemengo taldeen berri.

**• Zu moduko atezain ezagun batek admiradora asko izango ditu...**

Ez dakit. Entrenamentuetara jende asko etortzen da. Honez gain, jendeak asko idazten du, argazki, poster... eskatzeko, baina ez neskak bakarrik, adin eta leku desberdinetako jendeak. Alde horretatik eskutitz dexente jasotzen dira.

**• Zer egiten duzu zure denbora librean?**

Familiarekin etxean lasai egotea gustatzen zait. Honez gain, golf-a praktikatzen dut nire denbora librean.

**• Eta azkenengo galdera Andoni. Zer eskatzen diozu urte berriari?**

Osasuna.

**dituzu? Baduzu kanpora joateko asmorik?**

Ez dut uste futboleko urte asko jarraituko dudanik. Hala ta ere, futbola uzten dudanean ere, mundu honetan jarraitzea gustatuko litzaidake, baina ez entrenatzaile lanetan bestelako lanetan baino. Horrenbeste urte futboleko eman ondoren esperientziak zeozertarako balio dezakeela uste dut.

Bestalde, iaz izan nuen Ingalaterrara joateko aukera baina momentu honetan ez daukat kanpora joateko asmorik.

**• Askotan etortzen zara Aretxabaletara? Desberdin aurkitzen duzu herria etortzen zarenean?**

**• Zure futbolari bizitzan hainbat taldetan eta leku desberdinetan bizi izan zara. Non egon zara gustoroen?**

Nire betiko taldea eta oraindik ere horrela izaten jarraitzen du, Atletika da. Atletikean jokatu nuenean etxetik gertu nongoen eta gustora ibili nintzen. Bartzelonan egindako zortzi urtetan ere pozik ibili naiz eta orain ere gustora nago Valentzian. Leku bakoitza desberdina da, bere berezitasunak ditu eta egoera desberdinetara ohitu egiten da bat.

**• Aurrera begira zein asmo**

**JOSU**

**HARATEGIA**

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

**Dorleta**  
Taberna

Loramendi, 8  
Tfnoa: 79 94 15  
Aretxabaleta

**IMANOL**  
JANARI DENDA

BEREZIKI  
Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABAETA



**Aurtengo eskaparate lehiaketako irabazlea "Izozkitegi" goxotegia dugu. Maite Beloki bertako langilea da eta bera izan da eskaparatea apaintzen ibili dena.**

**• Maite, denbora asko pasatu duzu eskaparatea gertatzen?**

*Bai, dextente. Hasiara batean pentsatuta neukan ideiatik aldaketa asko egin ditut. 3, 4 bat egun behar izan ditut horretarako.*

**• Lehenengo aldia da saria irabazi duzuen?**

*Ez, beste behin bigarren saria irabazi genuen.*

## "Goxotegian lan egin arren ez naiz goxoekin aspertzen"

**• Zer du eskaparateak?**

*Saltzen diren produktuekin egin-dako eskaparatea da, turroia, txokolatinak... Belena esaterako mazapanaz eginda dago.*

**• Beti aurkeztu zarete lehiaketara?**

*Bai, urtero.*

**• Bazenuten irabazteko esperantzarik?**

*Ba... egia esan beste urte batzutan gehiago gustatu izan zait eskaparatea nola gelditu den.*

**• Zer behar da horrelako eskaparate bat ipintzeko?**

*Gogoa eta imaginazioa ere bai.*

**• Zer saldu da gehien gabonetan?**

*Gorringo turroia.*

**• Zer eskatzen diozu urte berriari?**

*Lana eta denbora libre gehiago.*

**• Etorkizuneko iragarleetan sinisten duzu?**

*Ez, denek gauza desberdinak esaten dituzte.*

**• Goxozalea zara?**

*Bai, oso goxozalea naiz.*

**• Lanean ez zara goxoez aspertu?**

*Ez, gero eta gehiago gustatzen zaizkit.*

**• Zein da zure lan ideala?**

*Daukadan lana gustatzen zait baina lantegiko ordutegiaz.*

**• Egun berezi baterako platoa...**

*Legatza.*

**• Eguneko momenturik onena?**

*Arratsaldea, lana bukatu eta pasiatzeko denbora dudanean.*

**• Zure seme-alabek badute zure antzik?**

*Apur bat bai.*

**• Makilatu bai ala ez?**

*Orain ez, lehen banuen ohitura baina orain ez.*

**• Euskera batua ala etxekoa?**

*Etxekoa.*

**• Gizonari eginiko azken erregalua?**

*Fraka bakeroak eta jertse bat.*

**• Etxean jasotzen duzun propagandaz zer egiten duzu?**

*Zakarrontzira botatzen dut.*

**• Zeintzuk dira zure zaletasunak?**

*Eskulanak egitea gustatzen zait, margotzea, gantxiloa...*


**• Eguraldi hotza ala beroa gurago?**

*Nik gurago dut hotza.*



Marrazkiak: Mikel Arroiabe

**loramendi**  
euskera elkartea



*rain 50 urte ezkondu ziren Jose San Vicente eta Sofia Bengoa. 1947.eko urtarrilaren 4an hain zuzen ere. Ezkon bidaia Donostiara egin zuten.*

*Urrezko ezteiak urtarrilaren 4an Arantzazun ospatu zituzten senitartekoekin batera. Honez gain, urteurrena ospatzeko Torremolinosera egingo dute bidaia.*

*Jose eta Sofia Apotzan bizi dira gaur egun. Bere senitartekoen eta baita gure partetik ere zorionik beroenak.*

*Zorionak!*

Argazkia: Nerea Arana

## BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta  
mortzilak

Durana, 9  
Tfnoa: 79 19 79

BEIRALAN



## KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78  
Aretxabaleta

## OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 79 98 74  
ARETXABALETA

## KIXKOR TABERNA

Mitarte 13 ☎ 79 20 60  
Aretxabaleta

# Horra, horra!



Ez beldurtu, neu naiz eta. Ez naute oraindik bidali. Ile apaindegira joan nintzen gabonetan itxura hobea erakusteko eta begira zelan gelditu naizen. Ale barria koloretan argitaratu behar zela eta portadan neu agertuko nintzela agindu zidaten Aretxagazetakoek baina azkenean kalabazak jaso ditut. Modelo postua kendu didaten gazteak, **Jessica Povea**, **Maddi Iregi**, **Janire Fernandez** eta **Beñat Barrutia** dira. Eskerrak neska-mutiko hauek argazkia ateratzeko gertu egon zirena, bestela nik irten ezkerro, a ze desastrea!

Urtero AEDkoek antolatzen duten 1996ko

lehiaketetan atxabaltarrak ere izan ditugu sarituak. Horien artean, komikian helduen kategorian sari nagusia **Mikel Arroiabek** eskuratu zuen. Ipuinetan 12 urtekoen kategorian, **Leire Zubia** eta **Esther Mateos** izan ziren irabazleak eta 17 urtetik gorakoetan lehen saria **Mireia Olaverentzat** izan zen. Herrian holako idazleak eukita ziurtatuta dago Aretxagazetaren geroa.

Iparragirre ez zen Aretxabaletan jaio baina ETBko Iparragirre sarietan atxabaltar ugari ikusteko aukera izan genuen. **Iñurrategi anaiek Asier Aranguren** kirolean aurkezle onenaren saria eman zioten. **Haritz Amasenek Andoni Zubizarretari** eman zion saria eta azkenik **Joseba Larrinagak** elbarrituen izenean jaso zuen saria. Ez da ez marka makala!

Sariekin jarraituz, Ezkutu tabernan zozketatu zen entzuteko kate txikia **Haritz Bersaluzeri** tokatu zitzaion. Txarto pentsetan hasteko modukoak!

Eta gabon osteko ale honetan ezin aipatu barik utzi Olentzero. **Alberto Izagirre** izan dugu aurtengoa. Denontzat ekarriko ete zuen eskatutakoa?

Agur eta urte barri on!

A R E T X A Z O K A

## LANA

- Neska euskalduna behar da taberna lanetarako. (945) 44 50 86.
- Klinika laguntzaileak (errezidentzian lanean diharduenak) edadekoak zainduko lituzke etxean edo eritetxean arratsaldez edo gauetz. Tfnoa: 76 46 14 edo 77 02 13 (Pili).

## ETXEBIZITZA

- Aretxabaletan lokal konpartitua salgai. Tfnoa: 79 46 20.
- Garaje bat behar dut Portasolen. Telefonoa: 77 00 62.
- Garaje bat salgai dago Errekabarrenen. Interesatuta zaudetenok deitu 79 69 61 telefonora. (Arratsaldeko 8etatik 10etara bitartean).
- Pisia salgai dago Durana kaleko 33. zenbakian (3. solairua eskuma). Telefonoa 79 64 93. (Eguerdian eta arratsaldean).

## DENETARIK

- Urrezko kataia bat aurkitu zen abenduan. Deitu 79 01 05 telefonora.
- Ikasturte amaierako bidaiarako laguntza, Almen ikastola, BO 2. maila. Santo Tomas egunean saldutako errifan zenbaki sarituak:
  - 1.- 460
  - 2.- 296
  - 3.- 084
 Sarituak deitu Almen ikastolara: 71 49 07.

**Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali kultur etxean dagoen buzoira edo 151 postakutxatilara edo eta deitu 79 01 05 telefonora.**



## TRAINSPOTTING

**BRITAINIA HAUNDIA, 1995**

**AKTOREAK:** Ewan MacGregor (Mark Renton), Ewen Bremmer (Spud), Johnny Lee Miller (Sick Boy), Kevin Mackidd (Tommy), Robert Carlyle (Begbie), Kelly MacDonald (Diane), Peter Mullan (Swanney).

**ZUZENDARIA:** Danny Boyle.

“Trainspotting” drogen kulturari buruzko pelikula zintzoa eta ausarta dugu: hiltzeko zein bizitzeko balio duen kultura bat, azken finean. Horretarako Ediburgoko yonki batzuen bizimoduan sartuko gaitu egun batzuetarako. Bertan drogekin duten harreman estuak, monoa, drogak uzteko ahaleginak, utzi eta berriro hastea, diruaren premia, trafikanteen mundu beltza, etorkizun eza... isladatzen dira. Protagonistek bi aukera dituzte errutina honetatik ihes egiteko: integrazio soziala ala autodestruktzioa.

“Trainspotting”-ek drogen mundu horren erretratu errealista eta gordina erakusten du.

## Z A R A I A Z I N E M A

Urtarrilak 10, 11, 12, 13

### **TRAINSPOTTING**

**Ordutegia:**

Eguakotxa-zapatua: 10,15

Domeka: Setan (Umeen sesioa)

Urtarrilak 12 (Umeentzat)

### **LA TRIBU DE LOS BRADY**

7,30

10,15

Astelehena: 10,15

Urtarrilak 17, 18, 19, 20

### **EL PROFESOR CHIFLADO**

## Irakurtzeko liburuak



Titulua:

**Kalamidadeen liburua**

Idazlea:

**Joan Mari Irigoien**

Argitaletxea:

**Elkar, 1996**

**N**obela honetan familia xeble baten gora beherak kontatzen dizkigu Juan Mari Irigoienek. Aita eta aitona poetak dira, amak etxea aurrera eramaten duelarik; bi alaba bizkiek Opuseko osabaren edukazioa jasoko dute. Familia honen kontaerak irakurtzean irrifarra eta batzutan barre algara ere aterako zaio irakurleari, familia harremanak, sexua, politika, erlijioa, matxismoa eta beste kontu asko hankaz gora jartzen diren bitartean.

Umore ikutuaz gainera imaginazioa ere behar da, tarteka idazlearen estiloari eta kritikariei buruzko gogoetei ere leku egiten dien liburu interaktibo zoro honetan. Antton Olariagaren marrazkiek ere garrantzi handia hartzen dute, narrazioan ere tartekatzen direlarik batzuetan.

Durango azokarako argitaratu den liburua duzue hau, labetik atera berria eta gustora irakurtzen den horietakoa.

Joseba Lopez de Armentia

**EXPRESS  
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16  
Tfnoa: 79 23 43



**Lurrindegia  
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59


**Jauregi  
Okindegia**

Otalora, 10  
Aretxabaleta

**GARBITU S. KOOP**

**Garbiketa  
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 79 01 28



**ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA**

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07  
ARETXABALETA

**URTARRILA**

**10**

egukotxa

**ZINEA  
TRAINSPOTTING**

Zaraia zineman gaueko 10,15etan.

**11**

zapatua

**ZINEA  
TRAINSPOTTING**

Zaraia zineman gaueko 10,15etan.

**12**

domeka

**PREFERENTE TALDEA  
REAL UNION-UDA**

**LEHENENGO ERREGIONALA  
ARETXABALETA-ALOÑA MENDI**

**ZINEA  
LA TRIBU DE LOS BRADY**  
(Umeen sesioa arratsaldeko 5etan)  
**TRAINSPOTTING**  
Arratsaldeko 7,30etan eta gaueko  
10,15etan.

**13**

astelehena

**HITZALDIA**

“MENOPAUSIA”ri buruzko  
hitzaldia Arrasateko Monterron kultur  
etxean arratsaldeko 7etan.

**17**

egukotxa

**ANTZERKIA**

Txalo taldearen “Xagu tranpa”  
antzerkia Arrasaten. Amaia antzokian  
gaueko 10,30etan. Sarrera 1.000  
pezeta. Gazte txartelarekin 800  
pezeta.

**ZINEA**

**EL PROFESOR CHIFLADO**  
Zaraia zineman gaueko 10,15etan.

**18**

zapatua

**ANTZERKIA**

Txalo taldearen “La ratonera”.  
Arrasateko Amaia antzokian gaueko  
10,30etan. Sarrera 1.000 pezeta.  
Gazte txartelarekin 800 pezeta.

**ZINEA**

**EL PROFESOR CHIFLADO**  
Zaraia zineman gaueko 10,15etan.

**Kotxe marka guztien  
konponketak**

**Zerbitzu guztiak**

**Garaje T. NORTE, S.L.**

Zerbitzu Ofiziala



Basabe Poligonoa, A-1-3 • Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86 / Fax: 79 62 65 • ARETXABALETA

19

domeka

**ANTZERKIA****Txalo taldearen "La ratonera".**

Arrasateko Amaia antzokian arratsaldeko 8etan. Sarrera 1.000 pezeta. Gazte txartelarekin 800 pezeta.

**PREFERENTE TALDEA**

UDA-BETI ONA arratsaldeko 4,30etan Ibarra futbol zelaietan.

**LEHENENGO ERREGIONALA  
ARETXABALETAKO ANAITASUNA****ZINEA****EL PROFESOR CHIFLADO**


Zaraia zineman arratsaldeko 7,30etan eta gaueko 10,15etan.

**TAKOLO, PIRRITX eta  
PORROTIX pailasoak**

Urtarrilaren 19an

Aretxabaletako Zaraia zineman arratsaldeko 4retan. Sarrerak aurrez kultur etxean edo ludotekan 300 pezetatant. Takilan 500 pezeta.

Aretxabaletako Udalak antolatuta.



20

astelehena

**ZINEA****EL PROFESOR CHIFLADO**

Zaraia zineman gaueko 10,15etan.

**BEHARREZKO  
TELEFONOAK****Aretxabaleta**

• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Euskaltegia	79 21 68
• Postetxea	79 28 31
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Kiroletxea	79 64 61
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Basotxo	77 09 81
• Urats Gain	79 99 11
• Osasun zentroa	79 74 58
• Hezibide Elkarte	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Liburutegia	79 10 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Loramendi E.E.	77 0970
• Murrukixo M.E.	79 93 74
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• ALMEN	71 49 64
• Otorora	79 79 99
• Ludoteka	79 05 81
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Aretxagazeta	79 01 05

**Udaltzaingoa**

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

**Denetarik**

• Eskualde-Ospitala (Arrasate)	79 53 00
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• Renfe (Gasteiz)	23 20 30
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• SOS Deiak	088



Basabe Poligonoa A-15  
☎ 79 34 28

**ARETXABALETAKO****CONSUM EROSKI**

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8  
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g  
Tfnoa: 79 16 05

**ARETXABALETAKO****ITURGINTZA**

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

# MUGARRI



**Bigarren eskuko autoak, garantia oso osoaz!**



## Urtarrileko likidazioa

ESCORT	RS	2000	SS-AV	ASTRA GTI	2.0 i	SS-AP
MAVERIC		4X4	Km 0	PEUGEOT	1.9 i	SS-AH
PROBE		24V	Km0	PEUGEOT	TDi	NA-AD
MONDEO	TD		SS-AV	OPEL VECTRA	GT	SS-AM
MONDEO	TD		SS-AV	OPEL VECTRA		SS-AS
ESCORT	RS	2000	SS-AN	PROBE	2.5 i	B-OH
NISSAN PATROL			SS-AD	FIESTA	S 1.4 i	SS-AG
SIERRA COSWORT			SS-AH	FIESTA	S 1.3	SS-AH
TRANSIT	FT		SS-AL	FIESTA	S 1.1	SS-AS

**Autoak berrikusi, probatu eta kontrolatzeaz gain,  
garantizatu egiten ditugu**